

Donibaneko Hirigune Zaharreko Zirkulazio Arauen Ordenantza.

PASAIKO UDALA Iragarkia

Pasaiaiko Udal Osoko Bilkura, 1996ko irailaren 30an burututako bilkuran, Donibaneko Hirigune Zaharreko Zirkulazioa Arauen Ordenantza Arautzailea onetsi zuen behin-betikoz, eta Toki Erregimeneko Oinarriak arazten dituen Legearen 70 artikuluko 2. zenbakiak dioena betez, horren testu osoa argitarazten da.

Pasaia, 1996ko urriak 15.- Alkateak. (2479)(11160) Donibaneko Kasko Zaharra Peatonalizatzea.

Donibaneko Kasko Zaharrean oinezkoen ibilbidea hobetzeko, erabaki da ondorengo zirkulazio-arauak diktatzea:

1. San Joan kalea Arizabalo jauregitik Puntetako Bideraino oinezko esparru bezala kontsideratuko da eta, beraz, zirkulazioa debekatua egongo da eta ibilgailuen aparkamendua ere bai hemen aipatzen diren kasu berezietan ezik.

2. Merkantzien banaketa goizetan bakarrik egingo da 8etatik 14ak arte. Salbuespenez eta beharra zuriturik bakarrik baimenduko da banaketa arratsalde, gehienez ere orduerdiko luzapenez eta Udaltzaingoak aurrez baimena emanik, hau telefonoz lortu ahal izango delarik (tnoa.: 40.00.00).

3. Garaje-jabeak 9etatik 21ak arte autoekin irten daitezke baina ez sartu.

4. Pertsona elbarrituren bat transladatu behar den kasuetan, baimen berezia emango da ibilgailua edozein ordutan sartuko delarik, baina berehala erretiratuko da zeren eta baimen hau sartzeko bakarrik izango baita baina ez esparruan aparkatzeko.

5. Oinezkoen esparru barruan lana egin behar duten pertsonen ibilgailuz sartzeko baimena emango zaie dagokion obra-baimena aurrez lortua badute, oinezkoen esparru barruan ordubete baino gehiago aparkatzeko debeku espresuarekin.

6. Santiago plazan ibilgailuak aparkatzeko baimena aipatu esparruan bizi direnentzat gau- orduetan izango da eta ondorengo ordutegiaren arabera:

UDAN: (apirilaren 1etik irailaren 30era):

-21 orduetatik hurrengo eguneko 8,30ak arte.

NEGUAN (urriaren 1etik martxoaren 31 arte):

-20,30 orduetatik hurrengo eguneko 8,30ak arte.

Igande- jaietan goizeko 10ak arte luzatuko da ordutegia.

Gutziz debekatua geratzen da ibilgailuak San Joan kaleko txokoetan, untziralekuetan ea. Aparkatzea egun osoan, karga eta deskarga lanetarako izan ezik, eta justu behar den denborarako.

7. Arau hauek betetzeko lanak errazteko, biztanleek arautegi hau indarrean sartu ondoren Udaltzaingoaren departamenduan txartel bat eskatuko dute identifikatzeko eta autoaren aurrealdeko kristalean jarriko dute ikusteko eran. Aipatu txartela lortu eta erabiltzeko baldintzak arau hauen anexoan agertzen dira.

8. Arautegi honetako edozein puntu haustea Pasaia hiri honetako Trafiko, Motoredun Ibilgailuen Zirkulazio eta Segurtasun infrakzioak direlako Santzioen Arautegi Orokor Erregulatzailerako 14. artikulua arabera zehagarria kontsideratuko da. ANEXO A BIZTANLE TXARTELA LORTZEKO ARAUAK

1. Aipatu txartela lortzeko ondorengoak kreditatu beharko dira:

a) Arautegi honen objektu den esparruko biztanlea izatea.

b) Ibilgailua Pasai udalerrri honetako Ibilgailuen Zirkulazioaren gaineko Zergan alta emanda edukitzea.

c) Udalean paguak eguneratuak edukitzea.

2. Biztanle-txartela lortzeko beharrezko kondizioetako edozeinek huts eginez gero, Udalak txartela kendu ahal izango dio onuradunari, honek haren eskubide guztiak galduko dituelarik.

3. Norbaitek zirkulazio arauak behin eta berriro hautsiz gero, Udalak erretiratu ahal izango dio txartela onuradunari, honek bere eskubideak galdu egingo dituelarik.